Franco-Belga konpainiaren mea zamatokia
Cargadero de mineral de la Cía. Franco-Belga

2008



Franco-Belga konpainiaren mea zamatokia

Barakaldo

XIX. mendearen bukaeran eta XX. mendearen hasieran, burdin mea esportatzeko ekoizten zen eta itsasadarraren ertzeetan zamatokiak eraiki behar izan ziren behar horri erantzuteko. Testuinguru horretan eraiki zen Franco-Belga Konpainiaren 3. zamatokia, gaur egun oraindik ere jatorrizko elementu gehienak dituena.

Galindo eta Cadagua artean dauden paduretako ordeka batean dago, Reketan, Barakaldoko Udalerrian. Azpiegitura hau eraikitzeko proiektua 1875ean egin zuen A. Marco Martínez ingeniariak, Bilbotik Conchas meatzetarainoko trenbide proiektuaren barruan.

2002an Bilbao Ría 2000 ekimenari esker zaharberritu zen.

Cargadero de mineral de la Cía. Franco-Belga

Barakaldo

A finales del s. XIX y comienzos del XX, la producción de mineral de hierro con destino a la exportación obligó a la construcción de una serie de cargaderos en las márgenes de la ría que dieran salida a esta necesidad. En este contexto hay que entender el cargadero n.º 3 de la Compañía Franco-Belga, que ha sido uno de los pocos que ha llegado hasta nuestros días conservando gran parte de sus elementos originales.

Se encuentra situado en un rellano de las marismas existentes entre Galindo y el Cadagua, en el punto de Reketa del municipio de Barakaldo. El proyecto de estas instalaciones fue realizado en 1875 por el ingeniero A. Marco Martínez, como parte del proyecto general del ferrocarril de la ría de Bilbao a las minas Conchas.

En 2002 ha sido restaurado por iniciativa de Bilbao Ría 2000.

Ilgner pabiloia

Barakaldo

1995. urtean eraitsitako Bizkaiko Labe Garaien multzotik (AHV) Ilgner Pabiloia salbatu zen, 1927. urtean inauguratu zena. Kasu horretan, hormigoi armatuaren egitura nabarmentzen da, begi bistan geratzen baita, inolako apaingarririk gabe. Hormigoizko pilastra guztien tarteetan leihateak daude eta horiek lasaitasun sentsazioa igortzen dute.

Hormigoi armatuaren bidez, 55 metroko luzera eta 20 metroko argia dituen pabiloi zentral diafanoa kokatu da. Horrez gain, alboetan bi areto ezarri dira, Ilgner aretoa kokatzeko beharrizan azpizentralari aurre egiteko, makinekin eta aginte-taulekin batera, baita banaketa ezartzeko ere.

Barruko apaingarriak ezartzeko, erregionalismo historizismora jo zen. Halaber, zokaloetan Talaverako zeramika-azulejuak eta baldosetan erregionalismoko apaingarriak ikusgai ditugu.

1998. urtean, berriro ere hori gaitu zen Ezkerraldeko Enpresen Gune nagusia izateko xedearekin. Esku-hartzeak bere funtsezko balioak errespetatu zituen.

Pabellón Ilgner

Barakaldo

Del conjunto de AHV, derribado en 1995, se salvó el Pabellón Ilgner, inaugurado en 1927. Sobresale por la racionalidad de su estructura de hormigón armado, que queda vista, sin tratamiento ornamental. En los huecos entre las pilastras de hormigón se disponen ventanales que dan sensación de liviandad.

El empleo de hormigón armado posibilitó la articulación de una nave central diáfana y libre de 55 metros de longitud y 20 de luz, y dos naves laterales, que respondía a la necesidad de la subcentral de albergar la sala Ilgner con la maquinaria y el tablero de mandos, y la instalación de distribución.

Para la ornamentación interior se recurrió al historicismo regionalista, con el uso de azulejos de cerámica de Talavera en los zócalos y de baldosas con motivos regionalistas.

En 1998 se rehabilitó para destinarlo a Centro de Empresas de la Margen Izquierda. La intervención fue respetuosa con sus valores esenciales.

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Ilgner pabiloia
Pabellón Ilgner

2008



Burtzeñako zubia
Puente de Burceña

2008







Burtzeñako zubia

Barakaldo

Industrializazioaren ondorioz XIX. mendearen azken aldera Bizkaian garraio-azpiegiturek izan zuten garapen handiaren adierazle bikaina da Burtzeñako Zubia. Pablo Alzola ingeniariak diseinatu zuen 1885. urtean, tarte zuzen eta saretadun zubi-ereduari jarraituz. Urbanizatu gabeko inguru batean egin zenez, ez zuen tratamendu estetikorik behar izan, bai, ordea, funtzionala eta ekonomikoa.

Kadagua ibaiaren zeiharretara dago, zutabe artean 65 metro ditu, tartean inolako euskarririk gabe. Faseka eraiki zen: lehenengo eta behin, bermeak egin ziren, eta, gero, bi kaxak jarri ziren, bana martxaren noranzkoan; gaur egun ibaian gora jarrita dagoena baino ez da geratzen.

Renfek zubi berri alternatiboa egitea aurreikusita zuen arrean, azkenean ez zen bota zubia, 1995eko urrian Kalifikatutako Ondasun Kultural gisa proposatu zelako. 2005. urtean jaso zuen izendapen hori behin betiko.

Puente de Burceña

Barakaldo

El Puente de Burceña constituye una brillante muestra del intenso desarrollo que tuvieron las infraestructuras del transporte en Bizkaia a raíz de la fuerte industrialización a finales del S. XIX. Lo diseñó el ingeniero Pablo Alzola en 1885 siguiendo el modelo de puente de tramo recto y celosía. Al ubicarse en un espacio no urbanizado no requería un tratamiento estético, sino funcional y económico.

Se dispone de forma oblicua al río Cadagua salvando una luz de 65 metros sin apoyos intermedios. Se construyó por fases: en primer lugar se erigieron los apoyos y, a continuación, se colocaron los dos cajones, uno en cada sentido de la marcha; hoy sólo se conserva el dispuesto aguas arriba.

El puente se salvó de la demolición que Renfe había previsto al construir un nuevo puente alternativo, gracias a la incoación como Bien Cultural Calificado en octubre de 1995. Se declaró como tal definitivamente en 2005.

Kastrexanako zubia

Barakaldo

Zubi hau (harrizkoa, eta arku eta begi bakarrekoa) Barakaldoko Kastrexana auzoaren eta Bilboko lurren artean dago, Kadagua ibaiaren gainean.

Kastrexana eta bere zubia Burgostik Bilborako errepidearen Erdi Aroko trazadura zaharrean daude, eta 1396. urtean aipatzen da. Baina aipatzen dena ez da gaur egungoa, bazik eta aurrekoa, egurrezkoa (zubi horren mantentze lanak garestiak ziren Bilboko kontzejurako). 1435. urtean, Bilboko hiribilduak gaur egungo azpiegitura, erosoa eta fidagarria, eraikitzea erabaki zuen, eta Lekeitioko Pedro Ortizek egin zuen. Hare-harrizko silarrietan landuta dago, nahiko zabala den arku bakarra du eta ibai bazter harritsuetan eusten da.

Hainbat kondaira dago zubiaren inguruan, eta, izan ere, Deabruaren Zubia ere esaten diote, deabrua protagonista duen kondaira bategatik.

Puente de Kastrexana

Barakaldo

Este puente, de piedra de un arco para un solo ojo, se halla entre el barrio baracaldés de Kastrexana y los términos de Bilbao, sobre el río Cadagua.

Kastrexana y su puente pertenecen al viejo trazado medieval del camino real de Burgos a Bilbao y se cita ya en 1396. Pero aquél no es el actual, sino otro anterior de madera, cuyo mantenimiento costaba mucho dinero al concejo de Bilbao.
En 1435, la villa de Bilbao decidió construir la infraestructura actual, cómoda y fiable, obra de Pedro Ortiz de Lekeitio. Labrado en sillares areniscos, es una fábrica de un arco de bastante luz que apea en la orillas rocosas de las riberas.

En torno a él se han tejido varias leyendas y, de hecho, es conocido también como Puente del Diablo, por una que tiene al demonio como protagonista.

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Kastrexanako zubia
Puente de Kastrexana

2008